

- Haurraren eskolaz kanpoko ekintzak ongi aukeratu behar dira. Gurasoek haurraren denbora libre modu eraikitzaile batean kudeatzen lagundu behar dute eta baita ikaste esperientziaz disfrutatzen ere. Oso egokiak izaten dira batik bat kirolarekin eta kultura arloarekin zerikusia duten ekintzetan parte hartzea.
- Ikasketa prozesuaren inguruko jarrera baikorra aurkeztu behar dute gurasoek. Ikasleek ikusi behar dute gogor lan eginagatik emaitza onak dakartzatela eta eginiko esfortzuak merezi duela. Giro horretan bizi diren ikasleak, normalean, eskolako jardueretan hobeto moldatzen dira. Horren aurrean gurasoak ereduak izan behar dira eta hurrei jakinarazi behar zaie, eredu izanez, bizitzan eginiko esfortzu guztiak azkenean sariak ekartzen dutela. Egokiak izaten dira eskolako helburuak lortzen lagunduko duten jarduerak planteatzea. Adibide gisa, norbere gaitasunak garatuko duten jolasetara jolasten.
- Haurraren lorpenen inguruko itxaropenak altuak izatea eta horrela jakinaraztea umeari. Itxaropenak altuak izan behar dira baina baita errealistak ere. Hau da, haurraren gaitasunetatik hurbil egon behar dira, kontutan hartu behar dira dituen abileziak eta heldutasun maila. Horretarako haurrari lan egitera animatu behar zaio eta lortutako lorpenak zoriondu.
- Etxeko lanak aurrera eramateko jarrera egokiak hartu behar dira. Ikaslearen beharrak asetu egin behar dira. Laguntza behar dutenean gurasoak prest egon behar dira laguntzeko eta beraien ondoan egon. Ikaste karpeta eta etxeko lanak dituen galdetu eta horrela bada, egunean bertan egitera gonbidatu. Beti ere errefortzu positiboak emanez eta ez behartzen. Eskolaren edo-eta irakaslearen inguruan hitz egiterakoan modu eraikitzailean egin, jarrera baikorra azalduz. Irakaslearekin komunikazio zuzena izan telefonoz, aurrez-aurre, e-mailez... umearen inguruko sentazioak partekatuz eta bien arteko itxaropenak partekatuz

Amaitzen joateko, ondorio gisa eta laburbilduz, kontutan hartu behar da eskolak haurrak “ekoizten” dituen enpresa bat dela eta industriagintzako “puntako” enpresak estrukturaliki ongi antolatuta, egituratuta eta planifikatuta badaude eta kalitatea bermatzen duen sistema bat erabiltzen badute, zergatik ez da sistema berdina edo antzekoa erabili behar hezkuntza mailan? Ez dugu zertan sistema berririk asmatu behar. Inguruan ditugun ereduak kontutan hartu behar dira eta horiek onak badira eta erabilgarriak badira kalitatezko hezkuntza sistema bat bermatzeko, kopia dezagun baliogarria zaiguna eta beharrezkoa dena moldatu.

Bestetik, gaur egungo enpresak bezeroarekin egunero daude kontaktuan. Edozein zalantza izanez gero, bien aldetik, momentu oro daude elkarrekintzetan e-mailez, telefonoz, bilerak eginez, bideo-konferentziak... argi geratzen da, industriagintzan bezeroarekin etengabeko kontaktuan egoteak bere emaitza onak dakartzatela, beraz, zergatik ez da egon behar ikastetxea bere bezeroarekin (familiarekin) kontaktuan une oro? Azken finean denok helburu berdina dugu, gure “*produktua*” hoberena izatea.

Bibliografía

- Eusko Jaurlaritza (1997). Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua lantzeko gida. Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako Orientabideak Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Alvarez M. (et al.) 2000: El Proyecto educativo de la institución escolar. Barcelona Ed. Graó
- Antúnez S., Gairín J. (1996): La organización escolar. Practica y fundamentos. Barcelona. Ed. Graó
- Cantón, I (2004). La organización escolar normativa y aplicada. Madrid.biblioteca Nueva
- Ceballos, E eta Rodrigo, M. J. (2001). Seme-alabak gizarteratzean gurasoek dituzten helburuak eta estrategiak. In M. J. Rodrigo eta J. Palacios (koord.), familia eta giza garapena (225-243 orr). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitate
- Eusko jaurlaritza (1995). Hezkuntzaren kalitatea. Vitoria-Gasteiz.
- Martinez, A. eta Galindez, E. (2003) familia y entorno. Implicación de la familia en la organización escolar.